

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bakioko Udala****Bakioko 2017ko Kontu Orokorra**

Bakioko Udalaren 2017 ekitaldiko Kontu Orokorra aurkezten da eta agiri hauek osatzen dute:

- Egoera balantzea.
- Irabazi eta galeren kontua.
- Urteko txostena: finantzaketa-koadroa, zorraren egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta kontabilitate orokorra erlazionatzen dituen informazio eranskina.
- Aurrekontuaren likidazioa.
- Urteko egoeraren eranskinak: egiaztapenaren balantzea, kreditu aldaketen egoera orria eta baloreen egoeraren eta mugimenduen orria.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. artikuluan aurreikusitakoa betez agertzen da. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik 15 egunen barruan, interesatuek espedientea aztertu eta bidezko jotzen dituzten erreklamazio, eragozpen edo oharrak auzeraz ditzakete.

Epe hori amaitu eta gero, Kontuen Batzorde Bereziak, aurkeztutako erreklamazioak aztertuko ditu eta egoki ikusten dituen egiaztapenak egin eta gero, txosten berria eta Osoko Bilkuran onartzeko proposamena emango ditu.

Guztiek jakin dezaten jakinarazten dena.

Bakion, 2018ko garagarrilaren 10ean. — Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra